

**MEGAPROIEKTUAK, BAI**



- Megaproiektuek **lanpostuak** eragiten dituzte, zuzenekoak asko eta zeharka are gehiago, eta inguruko **ekonomia dinamizatzeko eta bultzatzeko** balio dute; gainera, **turista asko erakarriko** dituzte eta dirua utziko dute.
- Honelako proiektuek, **zeharka, inguruaren urbanizazio eta garapena** dakarte: **zerbitzu-erakin handiak** sortzen dira (hotelak, jatetxeak, auditorioak...), **garraio-azpiegiturak** eraiki edo egokitu egiten dira (autobideak, aireportuak, aparkalekuak...)...
- **Bideragarritasun handiko proiektuak** dira: atzean multinazional indartsu eta dirudunak daude eta ez dago porrot egiteko arriskurik, gainera, Administrazioaren (udalak, aldundiak, autonomia erkidegoak...) **babes osoa izaten dute.**
- **Herritar gehien-gehienak alde** daude, alderdi txarrak izanagatik gehiago baloratzen dituztelako onak, eta bereziki eragin ekonomikoa; gainera, proiektu erraldoi hauetako gehienek arrakasta izan dute: Port Aventura, Eurodisney...

**MEGAPROIEKTUAK, EZ**



- Megaproiektuekin **ez dira hainbeste lanpostu sortuko** eta sortzen direnetako asko ez dira izango ez egonkorrak, ez duinak; megaproiektuen **bultzatzaileek dirua egin** beste asmorik ez daukate, ez dira fidagarriak eta gehienetan berdin zaie non ezartzen diren.
- Honelako proiektuak ondo saltzen dira, baina asmoetatik **errealitatera salto handia dago; arriskuak eta alderdi txarrak** ere badituzte, isilpean gordeta sarri; **proiektu asko bidean geratu** dira edo ez dute arrakastarik izan.
- **Ez da bidezkoa Administrazioak hainbesteko babesa ematea** eta legeak edo arauak aldatzea horrelako proiektuak erakartzeko edo ezartzeko. Administrazioak ez luke horrelakorik finantzatu beharko, baizik eta **industrian eta kapital sozialean inbertitu**.
- Megaproiektuekin **irabazi irabazten da, baina galdu ere bai**: turismo masiboa erakartzen dute eta lekuan lekuko identitatea ezabatzen; gainera, turismoarekin bestelakoak ere etorriko dira: diru beltza zuritzeko bidea, drogak, alkohola...